

## **ARRAUNKETA ESKOLA KIROLEKO PROGRAMAN**

2024-2025 ikasturterako Gipuzkoako lurralde historikoko Eskola Kiroleko arraunketako Kirol Bakarreko Hastapen Programa arautu da. Programa honek kirol bakarreko hastapen jarduerak (asteko entrenamenduak), asteburuko partizipazio lehiaketak eta/edo topaketak ditu.

**Hasteko adina:** alebin kategoriako bigarren urtea izango da.

**Jardueren osagarritasuna:** Kirol bakarreko hastapen programaosatzen duten jarduera guztiak (kasu honetan, arraunketa) Multikirola programaren osagarri dira eta ezin izango dituzte oztopatu Multikirola Programako jarduerak.

**Irakaskuntza saioak eta Topaketak:** Astean behin irakaskuntza saio 1 egin ahal izango da (entrenamendu saioa). 2024-2025 ikasturterako, Federazioarekin horrela adostuta, 5 topaketa egingo dira.

**Izen-ematea:** Arraunketan parte hartu nahi duten alebin bigarren urteko ikasleak klubaren bitartez eman behar dute izena Eskola Kiroleko aplikazioan (Kirol Datan). Multikirola programaren osagarrienez, ikaslea Multikirolean apuntatu behar da bere ikastetxean, klubean izena eman ahal izateko.

